

KOLABORAZIOAK

Astekari batek derrigorrezkoak ditu kolaborazioak. Bestela, bere baitan itxi ezker, irakurle eta adiskideekin elkar-hizketa guztia autsiko luke. Ta elkar-hizketa hori gabe ez du sentidurik astekari idiki batek. Baina amateurismo hutsen erori nahi ez baldin badu redaktore fijoak derrigorrezkoak ditu. Hauek osatzen dute edozein aldizkarietan benetako bizkar-egurra.

Z. ARGIA-ren sekzioen artean ba da bat HERRIAK ETA GIZONAK izena duena. Sekzio horrek bere redaktore fijoak ditu. Ono edo gaizki hautatuak egongo dira, seguru asko ez dira denen gustokoak. Baina ustekariarentzat seguridade handia da astero lan jakin batzuekin kontatu ahal izatea. Era hortako seguridaderik ez balego nola nahi, berekasa, espontaneoan mendeen izango ginake. Redaktore hoiek dira, beraz, sekzioaren ardura dutenak.

Kolaborazioak, gai batzuetaz, batzuetan gehiegi eta besteetan gutxiegi izaten dira. Zenbaitetan bueltatu beharrea aurkitzen gero puntu berdinaz gehiegi diralako eta politika arazoetan gaurkotatuna bereala galtzen dutelako.

Aste hontan HERRIAK ETA GIZONAK sekzioko idazleak jai izango dute eta bere ordez kolaborazio batzuek azalduko dira. Izan ere ez genduke nahi kolaboradoreen lana baztertua utzi nahi. Baina konpreni dezatela hauek haur espezio bezala egiten dugula, ez baidugu bestela asteroko zenbakia planifikatzeko modurik. Hala ere ez genduke nahi, ezta gutxiago ere, elkar-hizketa itxi nahi. Baina hau askotaz ere probetxugarria izango litzake gure astekarlan azaltzen diran artikuloei buruz diskonformidada edo konformidada azalduko balute.

ANDONI ITURRIA, ZUZENDARIAK

HERRIAK ETA GIZONAK

TRAN CONG-TUONG ETA NGUYEN VAN TIEN BRUSELA'N

Belgika'ko gobernuak laister hartuko bide du anitzakotzat Hanoi'ko gobernu. Hau dala-ta, Rollin ministro lehendakari, afari-alkarriketara bat izan da Brusela'n Otsailaren 4-ean. Mahaipuru ministroaren ondoan, Nguyen Van Tien (F.N.L.-ko zuzendaritzako burukide) eta Tran Cong-Tuong (Paris'ko alkarrizketetan Hanoi'ko buruzagietar bat). Afaria, ehun lagunekin, «Métropole» Ostatu dotorean egifiz, eta prentsa deituz, ofizialtasun apur bat eman izan nahi zaito harrera huri.

Afal ondoan, eta hasiera gisa, F.N.L.-ko lagunak eta Hanoi'ko kontseilariak segidan, Viet Nam'gokondarira apur bat egin dute. Gauza ezagun gehienak, Bi puntu nagusi haler: 1) Bai Iparraldeko ordezkariak, bai negaldekoak, garbi utzi nahi izan dute ideia bat: Viet Nam'darrak aberri-askatasunaren alde borrokatzen dirala gaur. 2) Hanoi'ko gobernuak eta Hegoaldeko F.N.L. dalakoak bi helburu taktiko diferente dituzte gaur-gauruk: Iparraldeko sozialismoaren erakileran abaitua dago; Hegoaldea, aldiz, amerikatarrek zapal-

durik, nazio-askatasuna bera ez du lortu. Oraingoz, beraz, Hanoi'ko gobernuak eta F.N.L.-ak bi jokabide taktiko diferente dituzte gidari. (Esate baterako: Hanoi'koek alkartasuna hestutu nahi dute sozialista erresumekin; F.N.L.-a, ordea, neutralista da).

Mamitsuen, halere, galde-erantzunak izan dira. Galderak egin dituztenek askatasun osoan egin dituzte, noski. Erantzunak, gehienetan, aurrez-aurre eta harira eginak izan dira (Txekoslovakia'ri buruz Tran Cong-Tuong'ek eman duena ezik).

Oso gogoangarria izan da dana.

Viet Nien'ek azaldu duenez, hiru partiduk osatzen dute gaur F.N.L. deritzana: «Démocrate» izenekoak, burges abertzalea, nazio-burgesia hiru hitz batez; «Radical Socialiste» izenekoak, gutxi gora-behera intelektual eta burges-bikien taldea; eta «Marxista-Leninista», nekazari eta langilleena gutxi gora behera. F.N.L.-ko buruzagitzan ba dago besterik ere: budisten eta katolikoen ordezkariak, Viet Nam'gok etniak (esan duenez, 30 etnia-taldek dute abotsa F.N.L.-an); sindikatoenak, eta abar. Behin eta berriz Van Tien'ek agerraztu duenez, F.N.L.-ak aberri-helburu bat du gidari; Viet Nam'1 askatasuna eta batasuna ematea. Modu huntara bildo du eginkizuna: «pakea, askatasuna, demokrazia, nazio-batasuna. Gure nazio-askatasuna onartzen ez duenik ez dugu guk onartzen. Gure aberri-nagusitasuna ontzat ematea: horra hor gure baldintza nagusia».

Nahiz Hanoi'ko gobernu beste maila batean egon, Cong-Tuong'ek behin eta berriz ere gogoratu duenez, Iparraldean Aberri-Aikarte bat dago zuzendaria: «sozialistek», «demokratek» eta «komunistek» osatua.

Entzule askok adierazi dute kezka ezagunak: egia da komunistek besterik buruzagitzan egoteko eskubi derik uzten diotenik? Nork zuzentzen du gaur F.N.L. dalakoak? Kalte handirik egin du du Mao-zaleen bezretzetak? Zuhurtasun handiaz eran-

tzun dute biek. Hanoi'ko gobernuan, Cong-Tuong'ek azaldu duenez, marxista-leninista ez diran hiru ministro daude, esate baterako. Van Tien'ek, era berean, gaurko F.N.L.-an marxista-leninistak minoria bat dirala esan du. Batak eta besteak, hitz batez, Viet Nam'gok abertzaleatasuna aipatu dute eten gabe. Klase-burruka, erreformismoaren kontrako herra, sindikato orien aurkato madarikazioak, chauvinismoa, burges alienazioak, eta gure marxisten ahotan bati ere entzuten diran leloak, ez ditugu behin ere entzun.

Maltzurkeria? Taktika hutsa? Ez dut nik hori hemen garbitzeko asmorik. Brusela'ko biltzarra nola gertatu dan besterik ez dut nik azaldu nahi nere huntan.

Hau ikusi da agiri-agirian: Viet Nam'en dinamika eta gura gaur abertzaleatasuna dala, askatasun-nahia, bi nazio-erdiak batu-nahia. Gauza bera esan du Thant jaunak munduan zehar behin eta berriz. Eta gaur bera esan ohi dute Vietnam'arrek berek, marxista-leninista izan ala ez izan. Brusela'ko «Aberria» aipatu da Jotsarik gabe maila aldiz: «le front sacré de la Patrie», «unification nationale», «indépendance nationale», «libération du Viet Nam», eta abar. Eta behin eta berriz entzun da ezen bai Hegoaldean (eta bai Hanoi'en bertan ere!) garaia ez dala gaur komunista alderdiarena, abertzale-AIkarte'arena baizik.

Viet Nam'darren abertzaleatasuna axaleko sendimendu erromantiku bat besterik ez balitz, jokabide hau ez litzake konprenituko. Herria F.N.L.-aren atzean baitago.

Halere, bai Van Tien eta bai Cong-Tuong jaunak, marxista-leninista dira segur aski. Baiña, Ho Chi Minh'en hitzez balatuz, hau esan dute: «tant qu'il y ait un soldat étranger sur notre terre, nous avons le droit et le devoir de nous battre pour la libération nationale».

LARRESORO

Zergatik gorrotoa Israel erriari...?

Europa-ko azkenengo gudaketan milioika israeldar edo juduok itzutzen. Ni, ez naiz asten orduko erri orren ezbehar, kalamidade ta naigabeaz. Alemanian, Polonian eta baster gutzietako orduko kanpo-konzentrazioak, millaka illaz. Ene aietako zineak ikusita, gorpuztuz guzian otzikarke egin oi ziran. Israeldarrak, beti izan dira erukitsu. Barsobia-ko bazterretan, egin zuten guda alemanen aurka, gogoratutik, alpagarria zan. Amerikanoak, Prantzesak, Ingelesak eta abar, guziak orduan, guda unetan, juduen alde zeuden, zekitelako, berak irabazi ezkerko guda, beste guziak ere garaille izango zirala. Guda bukata bezin laixter, mundukoak oarturik Israeldarrak bear zutela beren ERIA, ala eman zitoen lurra, gaur ezagutu den ERIA orl. Israeldarrak ongi zekiten eta dakite, areriyu aundiak izango zituztela, batez, Inguruko arabien alban. Orregaitik, erria uparitu ta armatu zuten beren ainbeste naigabe ondorengo sariya lortua, ta gaur egunian ikusten degunez, nolako gudaketak daukaten alboko arabeekin. Gaur, guziak gogor daude. Eurak pakea nai dute, ez guda. Zergaitik daude bi erri oiek orrela? Guda, gudak, irautzeko luze, bi erri oien errua ez da, baizik, beste laterru aundi ta arroputz oiena bañon. Rusoak, Amerikanoak, Alemanak, Prantzesak eta abarrek dute erurrir aundi, laguntzen ditelako, emanaz orrenbeste egaskiñ, kafioi eta beste tramankulu.

Munduan, aspaldiko urte auetan, beti ezagutu degu guda. Nazio aundi oleri, komeni zaiotelako beren armak saltzia. Nola bestela, guzientzat lana izan? Pabrikak gudik ez dagonian, lanik ez besterik ez du nabaitzen. Begira Vietnam'go lurraldieta. Txinoak eta rusoak lagunduaz Nortxiengoari. Amerikanoak Surviengoari. Gaur egunian, badirudu gauzak ontzen ari dirala, pakea aurki izango dutela. Zergaitik? Erantzun erraxa da. Bi aberri aundi oiek, elkar ongi konpontzen badira, ez ez gelago armik eman... ikusiko degu aurki pakea, bai Vietnam-en eta Palestinan.

Prantzesakin arritzen naiz ni. Ez da oraindik denbora asko, Ingelesakin batian Israeldarrakin guda eman ziotela. Geroztik prantzesak laguntzen jarraitu dute emanaz israeldarrari egazkin eta beste tresnak. Gaur zer? Botokot egin diote. Libanon egaskiñak erre ta kixkali dituztelako.

Israeldarrak aurretik esaten dute, sabotajeaz ez dutela ezer egingo arabetarrek. «Ortzak ortzetik, begiak begitik». Zuek eman, baita nik ere eman, zuk jo, baita nik ere jo. Arabeak bota zitoen guda ontzi ELAT, beriala Israeldarrak erre ta kixkali zitoen petrolio refinatzeke lekua. Gero, orain denpora gutxi, gorago esandako egazkin pilloa erre dute. Ortan jarraiko dute baldin gauzak artzen espadituzte aintzat.

Israeldar gizajo oiek, ez aluzten naiko ezbehar igaro orain etgetaka urte alemanen gudan? Oraindik iltzen, eta iltzen, bukaeraren astarnik gabe. ¡Israel erria, errukarria benetan!

Egunen batian, pakea etorriko zaito. Etorzian, esango degu? Bañon, orren erraxa izan eta nola orain arte ez da lortu pakerik?..

Juduak nik anitz ezagutu dituk amerika alidian. Bai goialdiokoak eta baita bekoak ere. Nik nabaitzen nuan, ikusten nuana zan; elkar oso batuk dirala. Diru maiteak dirala esaten dute. Zein ezta? Juduen diru orreri esker, gaur egunian beren ABERRIA daukate. Aberri ori ez dute inoiaz galduko. Alperrik ibiliko dira arabeak eta berdin rusoak desentzen.

Israeldarrak pake egiteko gogo bizia daukate. Arrazoiakin esaten dute, pakea ez dutele nai inork ezarritakoa, baizik berak eta erabitarak elkarrekin lortutakoa baizik. Beste jauntxo oiek e z dira ifiori ezarritzeko legerik, bakoitzak bere etxia zaitu bear du, eta aurreko bizi lagunak errespetatu. Kale batian gauzak elkar konpondu bear, eta ez ekarri beste kalekoak, esan nai detena, uzteko arabeak eta Israeldarrari beren korapilloak askatzen, besteren laguntasunik gabe. Israeldarrak prest daude elkar izketa ori lortzeko eta ez du jakin nai deusik besteren konsejurik. Israeldarrak garbi esaten dute. Arabetarrek auri ditzala aintzat beren interesak, elkar errespetatu ditzatela legiak, nola delako Golfo de Akaba muturra, nola SUEZ ibaiako bide berdiña batera eta bestera igarotzeko, eta bi arerio oien tartean, jartzeko beste indarra, ONU-ko gudariena. Bañon, arabietarrak ez dute olakorik nai. Oiek nai dutena da, zero xeutu israel erria eta bota denak itxasora. Arabien arrokeriak ez diral ain errex xeutuko eta orregaitik berak lortu ezin duten auzia, besteak lortu bearko dute.


Israeldarrak, ez aldira errukigarriak? Nere ustez bai. Orrenbeste milioi litzeak errukigarriak dira, eta arrazoiak elkarrekin konpodu bearrin dira bi betiko areriuak.

Nundik sortu pakea? Ingeles aldetik? Prantzez aldetik. Rusiengandik? Amerikanoengandik? Ez da errexia ori asmatzen. Aundi oiek, lenen elkar konpondu bear dute, gero beste biak alik eta onduen konpontzeko. Ez eman armik, ez egazkiñik, ez txindirik. Laxterka ikusiko genduen orduan, biak bakarrik uztean nola pake elduko zaiotzen. Rusoak beren interesagaitik dabilz arabeari laguntzen. Oiek ortan oso yauyak dira. Komeni zaiotzen lagunduaz. Berdin amerikanoak. Bi otso oiek dira beraz, errudun gaur egunian, bi gudaketa oiegaitik. Vietngoa eta Palestinakoa.

Jonson jaunari erruak ematen dizkiote. Onek, zer egin, beste aurreko Eisenhower oiek eta Kenedy-k emandako naspillak auri zituztenen? Beste oiek naastu ondorengo zikinkeriak, nola garbitu Jonson jaunak. Erraxa da askorentzat esatia, pake errexia dala lortzie. Eta, abertzaleatasuna zer? Jonson jaunari txapela kentzen diot nik. Onek alegiñak egin ditu pakea lortzen, naiz ta alperrikikoak izan alegiñ oiek. Nixon jaunaren itxaropenez dago gaur mundu guzia. Onek, uste da, lortuko duala pakea, besteak ortako bideak eginda dauzkalako. ¡Orra or ordaña amerikanoak, ainbeste milioi gastatu, ondoren, guzia galduta, ta gudariak etxera joatia laxterka, Nixon-ek esango du, besteren zikinkeriak garbitu dituala...

EGUZKIZAR

GURELESA



Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekialak:

- Ene Pasturizatus
- Esne sailla (esterilizatua)
- Esne autsa
- Guriña
- Yogur
- Batidua

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ar) — DONOSTIA

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zuzu

ATOMIZADO LAGARTO — jabola erabilli beti

Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jabola bear dezur erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabo bakarra

Etxeako-andrearentzat nekamerik egokiena.

jABON LAGARTO!

ESTABLECIMIENTOS **ayestaran** DONOSTIA

FERRETERIA ELECTRODOMESTICOS RAILITE

BURNI-SALGAIK Urbietta, 25 - Urrut. 26787 - 26788

ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK Urbietta, 27 - Urrut. 26788 - 26787

LEGEZKO ZABALTXAILLEA Aldaonea, 4 - Urrut. 15123 - 28566